

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Diamantea, uste baino gogorragoa

GAUZA JAKINA DA diamantearekin kristala edo altzairua moztu daitezkeela. Berriki egindako ikerketa batzuen arabera, konpresio-indar handien aurrean gogortu ere egiten dela jakin izan da. Bi laser erabiliz, diamanteak presio atmosferikoa baino milioi bat handiagoa den presioa jasan dezakeela frogatu da. Aurkikuntzak, diamanteen erabilerak teknologikoan eragina izateaz gain, gure planetaren eta planeta erraldoi gaseosoen barne-izaera hobeto ulertzeko balio dezake.

Stewart McWilliams-ek eta Jon Eggert-ek zuzendutako ikerketa batean, milioi bat eta hamar milioi atmosfera arteko presiopean diamanteak urtzeko nanosegundo bat behar duela ikusteaz gain, urtu aurreko azken uneetan diamanteak izugarriko indarra duela ere detektatu zuten. Beste ikerketa batean diamantea sei milioi atmosferatan eta 7.700°C-tan urtzen dela ere frogatu zen. Datu horiek arrasto garrantzitsuak eman ditzakete Urano eta Neptuno planetetan, karbono likidoaren gainean, diamante-izebergak flotatzen ari direla uste dutenentzat.



Kairei tximinietako karakolaren oskol harrigarria

INDIAKO OZEANOAN ospetsuak dira Kairei izeneko tximiniak, beraietatik etenik gabe laba igortzen baita. Hortxe aurkitu zuten, 1999. urtean egindako azterketa batean, karakol harrigarria.

Orain karakol horren oskola aztertu dute eta hiru geruza dituela ikusi dute. Barnean oso kaltzifikatua dagoen oskola du; horren gainean izaera organikoa duen geruza dago, baina kanpoaldean burdin sulfurozko geruza gogor eta erresistentea dago. Azken hori da ikerlarien interesa piztu duena, aplikazio teknologikoen eremua izugarri zabal baitezake; besteak beste, edozein ibilgailu motatan eta, nola ez, ibilgailu militarren blindajeetan.



WWW.DIGITALJOURNAL.COM

Berotegi-efektuaren aurka borrokatzeko sistema

Berotegi-efektuaren aurka borrokatzeko, gure gizartearen joera kontsumista aldatzea izango da gako nagusietakoa. Hori gertatu bitartean, zientzialari batzuek proposatu dute ozeano azpiko urak gorantz ponpatzea, karbono dioxido gehiago xurgatzeko. <http://ttiki.com/11027> (Frantsesez)

Zinemaren arrakastaren uestezko formula

Harrigarria badirudi ere, James Cutting psikologoak, 150 film aztertu ondoren, arrakastaren formula matematikoa asmatu du. Baina balioko al du formula horrek etorkizunean egingo diren filmen arrakasta asmatzeko? <http://ttiki.com/11028> (Frantsesez)

Munduko planktonaren banaketa azaltzen duen mapa

Science aldizkarian itsasoetan dagoen plankton-banaketa azaltzen duten bi ikerketa argitaratu dira orain gutxi. Planktonak, arnasten dugun oxigenoaren zati handi baten sortzailea izateaz gain, nitrogenoa eta karbono dioxidoa xurgatzen ditu atmosferatik. Oraingo ikerketek haren izaera hobeto ulertzeko balio izan dute. <http://ttiki.com/11029> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16